



JOSEBA INTXAUSTI

*Euskara eta hizkuntzak, gizartean*  
**Aurkezpeneko prentsa-oharra**  
(Bilbo, 2014-06-19)

Euskara eta hizkuntzen Historia Sozialaz autoreak 50 urtetan idatzitako artikulu-sorta bat biltzen da argitalpen honetan. Euskaltzaindiaren *Etxeberri Bildumako*, 2-3-4. zenbakiak dira. Autore berak eman zuen lehenengoa ere *EHS. Argibide bibliografikoak* izenpean (2011).

Hiru liburukitan banaturik daude idazlanak, eta 1.184 orrialde ditu obra osoak. Izenburu orokorraren azpian honela banatzen dira gaiak:

- I. Aitorpenak. Ekinbideak.*
- II. Jarrerak. Politikak, Pedagogiak.*
- III. Erljioak. Eliza kristauak.*

Hizkuntza ugariren albisteak jasotzen ditu liburu honek: lehenik eta batez ere euskarari dagozkionak, baina baita beste hainbat hizkuntzaren berriak ere, betiere euskararen historia argitzen lagun dezaketenak.

Azpi-tituluetan aipatutako azter-eremuez jardutean, irakurle-modu ezberdinak izan ditu gogoan autoreak: batzuetan, ikertzaileei eskaini nahi izan dizkie bere argibide eta gogoetak (ikerlan monografikoak), inoiz edo bestetan irakurle arruntari begira idatziriko lanak dira (gehienetan, sintesi historiko orokorrak). Lanik gehienak euskaraz daude, eta badaude, egokierak hala eskatuta, erdaraz idatzitakoak ere.

## EDUKIAK

---

“**Aitorpenak. Ekinbideak**” deritzan lehen liburukian topa daitezke talde euskaltzale historikoen ikuspegi orokorra (I, 19-69), euskal idazleek euskararekiko erakutsi duten ikusmoldea (I, 71-135), Orixe gaurko soziologiatik nola ikusi izan den (Iztueta; I, 137-152), euskararen ofizialtasun historikoak (I, 153-172), almanaka eta egutegietan ageri den azken bi mendeetako lehen kazetaritza zabal iraunkorra (I, 173-211), Udalerri jakin bateko hizkuntza politika (Segura; I, 213-265), 1950. urteetako bi aldizkariren historiak (*Jakin, Euzko-Gogoa*: I, 269-372), eta azkenik terminologiaren inguruko zalantza eta ekimenak (1981, 2005; I, 375-409)).

**Jarrerak. Politikak. Pedagogiak** dioen II. liburukia zortzi idazlanek osatzen dute, hizkuntzen inguruko jarrerak, politika kontrajarriak eta Eskolarako ahalegin pedagogiko zenbaiten albisteak biltzen dituztela. Madariagaren argitalpenak aukera ematen dio idazleari euskararen inguruko eztabaida eta gogoeta historikoak aurkezteko (II, 13-24), herrien historietan hizkuntzek izan dezaketen lekua argitzen laguntzen du P. Vilar historialariari egindako elkarrizketak (katalanaren kasua; II, 25-54), hizkuntzari buruz Katalunian ageri den pentsamendu historiko politikoa aurkezten zaigu nahiko zabal (II, 55-94), Errenazimentuko Humanismoak, Erreforma protestanteak eta Ameriketako ezarritako hizkuntza-kolonialismoak

garatutako ideia politiko-linguistikoak azaltzen dira ondoko idazlanean (II, 97-155), hizkuntzetan gerora halako pisua izan duten XVIII. mendeko proposamen politiko borboitarra eta Iraultza Frantsesarena aurkezten dira (II, 157-196), euskararen eliz erabilpena zela eta, Elizak eta lehen Gobernu frankistak ofizialki nola talka egin zuten erakusten da (II, 197-237). Liburukiko hirugarren atalak euskal literaturaren pedagogiaz autorearen gaztetako (1963) testu bat berreskuratzen digu, garaiko idazkera-arauak mantenduz (II, 241-272), euskararen historia sozialaz irakaskuntzarako zenbait ohar jasotzen da (II, 275-299), eta azkenik politikari, kazetari eta pedagogo liberal bat ematen da ezagutzera, L. Astigarraga (II, 301-343).

**Erljioak. Eliza kristauak** deritzan III. liburukiak erlijio-erakundeek hizkuntzen historian izan duten garrantzia azaltzen digu bere hamar azterlanetan. Lehen lanak eremu honetako arazoak eta 1987a arteko bibliografia nagusia aurkezteko balio izan zuen (III, 13-36); berehala, hiru saio ezberdinek laguntzen digute Elizaren eta euskaldungoaren arteko harreman-historia marrazten (III, 41-92, 161-174), eta ondoren Eliza erromatarren politikaz albiste zehatzagoak biltzen dira (III, 93-160).

Azpimarratzekoa da III. liburuki honetan eta aurreko azalpen orokorrako horien ondoren, lan monografikoagoei heldu zaiela. Hasteko, eliz gobernuko bi pertsonaien, Luku gotzainaren eta Jesusen Lagundiko fundatzaile Ignazio Loiolakoaren asmo pastoral-linguistikoak aztertzen dira (III, 181-229); XVI. mende berean, idazle nafar klasiko bat, Malon Etxaide, izango da hizkuntzarekiko ideia erlijioso-kulturalak aditzera emango dizkiguna (III, 323-358). Leizarraga eta lankideena ezagututa gero (III, 231-320), irakurleak aukera izango du Bibliaren euskarazko itzulpenen historia begiratzeko (III, 359-376).

Guztiak ere, urte eta egokiera ezberdinetan sortutako lanak dira, eta komeni da alde historiko hori gogoan izatea. Esate baterako, Euskaltzaindiak sustatu eta argitara emandako *Euskararen Liburu Zurian* (1978) ikusi zuen lehen argitalpena, orain “Hizkuntzek badute politikarik” izenburupean eman denak; handik hasita informazioak metatuz doaz ondoko urteetan, geure euskal historiara hurbildu eta etorriz.

## BEGIRA-PUNTU

## EZBERDINAK

Oro har, argitalpenak euskararen historiatik bere alde soziala dakar orrialde hauetara. Ez da, beraz, lan filologikoa, gizarteko bizitzan euskarari aitortu, zaindu edo ukatu zaizkion estatusak erakusten ditu, espazio, denbora eta gizartez aldakorrak direnak, aldarte historiko eta erabaki sozio-politikoaren arabera betiere.

Gertaera eta argibide historiko anitz aurkituko du irakurleak orrialde hauetan, hainbat kasutan euskararen iragana eta oraina ere hobeki ulertzeko gako argigarriak: inguruko hizkuntzek ere gainditu behar izan dituzten zailtasun eta ahaleginen historia, adibidez. Maiz, nazioartetik ere euskararena begiratzeko parada eskaintzen dute orrialdeok.

Euskal Herriko agintari, elite, idazle edo eskolatuek euskararekiko aditzera eman edo izan dituzten jarrera eta pentsaerari arreta bereziagoz begiratzen dituzte idazlan hauek, hizkuntzarekiko ardura nahiz zabarkeriak nabarmenduz, Euskal Herrian iraganeko oso bizi agertu baita hizkuntzarekiko harrotasuna, alde batetik, eta interes instituzional praktikoa eskasa, bestetik.

1950etik honako bi belaunen hizkuntzarekiko kontzientzia berri(tu)a oso agerikoa da aurkezten dugun obra honetan. Hain zuzen, azken aldiko oharpen argiago hori eta iraganeko elkarren argitan begiratu ditu autoreak.

## NORENTZAT DA HAU?-----

Gogoan ditugun argitalpenaren irakurle edo erabiltzaile gaiak gisa ezberdinetakoak izan daitezke, hasi irakurle herritar arruntagandik eta hizkuntzen eta euskararen ikertzaile direnenganaino. Haien eta hauen artean daude hurbilduko zaizkigunak: irakasle eta hezitzaileak, euskara-zerbitzuak eta teknikariak, hizkuntzaren iragana hobeki ezagutu nahi duten euskaltzale kezkatuak, alor honetan ahaleginean diharduten politikariak eta kultur gidari eta sustatzaileak, gure historia sozialaz arduratuta dauden idazleak.

Orrialde hauetan metatu den informazioaz baliatzeko saiatu gara aurkibide egokiak lantzen, bai aurkibide orokorretan nola gaien aurkibidean (batez ere azken honetan), nahiz eta edozein antologiak badituen gaietan berezko mugak ere. Liburua irakurgai den argitalpena da, orrialdeen jarraitasunean irakur daitekeena; baina hiztegi gisa ere balia daiteke gaien aurkibide alfabetikotik sartuta. Kontsulta-lanabesa ere bada liburua, hiru liburukiak batzen dituen gaien aurkibidearen bidez.

Honela, itxuraz sakabanaturik dauden argibide historiek iraganeko hainbat gertaera ezagutu eta sakontzeko bidea errazten dute. Aldi berean, iragan luzeago horretatik orainaldia hobeki ezagutzeko aukera izango dugu, euskaldungoak zein baldintzatan aurrera egin behar izan duen erakustean. Oro har, hizkuntzarekiko kontzientzia argi eta kritikoagoa lagundu nahi dute liburuan bildu ditugun idazlanek.

## EDIZIOAREN EZAUGARRIAK

-----

Idazkeraren aldetik, berrogeita hamar urtetako lanei Euskaltzaindiaren gaurko arauetara ekarrita, batasuna eman zaie, normalizazioaren mesedetan izango delakoan. Dena den, beti adierazita daude jatorrizko lehen argitaraldiaren urtea eta argitara lekua. Idazkeraren aldetik, beraz, testu guztiek dute batasun bera.

Era berean, oharra eta bibliografia *Etxeberri Bilduma*ko arauak zaindiz eman dira, hiru liburukiok ez ezik Bilduma osoak ere batasun bera izan dezan. Saiatu gara, gainera, idazlan guztiek izenburu-eraketa molde berean izan dezaten, eta “Aurkibide orokorretan” ispilatu da hori, batik bat.

Obra dena bere edukietan bateratzeko asmoarekin, “Gaien aurkibide alfabetikoa” gehitu dugu azken liburukian (III, 377); horrela, hiru liburukietako gaiak, errepikapenak, zalantzak nahiz iritzi-aldaketak egun argitan izango ditu irakurle eta ikertzaileak.

Edizioa Euskaltzaindiaren *Etxeberri Bilduman* egin da argitalpena, K. A. Euskal Fundazioaren laguntzarekin. Autorearekin batera (Ohorezko Euskaltzaina berau), Euskaltzaindiko teknikariek birmoldatu dute testua (I. Etxebeste eta K. Seguiolak).

<p>Intxausti, J., 2014, <i>EUSKARA ETA HIZKUNTZAK, GIZARTEAN</i>. I. Aitorpenak. Ekinbideak. II. Jarrerak. Politikak. Pedagogiak. III. Erljioak. Eliza kristauak Bilbo: Euskaltzaindia.</p>
---